AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4273

1719/2015 EBAZPENA, urriaren 5ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, hautatze-probetarako epaimahaia izendatzeko, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan duen Osasun Teknikari Laguntzaileen lanbide taldeko Erizaintzako Laguntzaileen kategorian (Erizaintzako Laguntzaileen, Osasun Mentaleko Erizaintzako Laguntzaileen eta Osasun Mentaleko Monitoreen lanpostu funtzionalak) pertsonal estatutarioaren egoerara heltzeko.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren maiatzaren 28ko 1135/2015 EBAZPENAren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-probak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu ziren.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren maiatzaren 28ko 1145/2015 EBAZPENAren bidez, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan duen Osasun Teknikari Laguntzaileen lanbide taldeko Erizaintzako Laguntzaileen kategorian (Erizaintzako Laguntzaileen, Osasun Mentaleko Erizaintzako Laguntzaileen eta Osasun Mentaleko Monitoreen lanpostu funtzionalak) oinarri espezifikoak onartu dira.

Oinarri orokorrak onartu zituen Ebazpenaren 18. oinarrian zehaztutakoaren arabera, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendari Nagusiak hautaketa-probak kalifikatuko dituen epaimahaia izendatu behar du.

Adierazitakoagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliatuz, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Lehenago aipatutako kategoriaren prozesuari dagokion Kalifikazio Epaimahaia izendatzea. Epaimahaikideak ebazpen honen I. Eranskinean zerrendatzen dira.

Bigarrena.– Ebazpen honek eman den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu zituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko maiatzaren 28ko 1135/2015 Ebazpenaren 21. oinarrian ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko helegitea jarri ahalko zaio Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urriaren 5a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.

I. ERANSKINA

Epaimahaiburua:

– Titularra: María Flora Murua Navarro

– Ordezkoa: Rosa Maria González Llinares

Lehenengo epaimahaikidea:

– Titularra: Leire Aldeano Merchán

– Ordezkoa: Teresa Esteban Galbete

Bigarren epaimahaikidea:

– Titularra: María Luisa Paula García Aramayo

– Ordezkoa: José Ignacio Orbegozo Castro

Hirugarren epaimahaikidea:

– Titularra: Guillermo Jubierre Altable

– Ordezkoa: María Mar Cerezo Castillo

Idazkaria:

– Titularra: Eugenio Esteban Alonso García

– Ordezkoa: Iñaki Pérez Sanz